



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK (USaP)

2025

AGPT

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD (PAU)

2025

TEGP

Adierazpen Grafiko-Plastikoaren Teknikak (AGPT)

Técnicas de Expresión Gráfico-Plásticas (TEGP)

AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

Azterketa honek bi atal ditu: A eta B. Egin soilik ataletako bat.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea

INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

Este examen consta de dos apartados: A y B. Realiza únicamente uno de los dos apartados.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas del examen



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK (USaP)

2025

AGPT

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD (PAU)

2025

TEGP

A atala

1. ariketa (probaren % 20ko balioa du)

Jarraian, bi irudi erakusten dira: Merche Olaberen *La coleccionista de cactus* 3 obra eta Nathalie Du Pasquierren *Still life on my bicycle* obra.

Gidoia:

Konpara itzazu bi irudiak, lanen aspektu formalak eta teknikoak aztertuz eta bi obra hauen sorkuntza-prozesuetan erabilitako prozedurak eta materialak alderatuz: trazuak, ñabardurak, argi-ilunak, erliebeak, kolorea, konposizioa, formatua, matrizeak (egotekotan). Alderaketa egiterakoan, ezinbestekoa da alor grafiko-plastikoko nomenklatura eta terminologia erabiltzea, baliabideak, prozedurak eta materialak deskribatzeko. (Aurreikusitako denbora: 20 min)

2. ariketa (probaren % 80ko balioa du). Ariketa honek bi atal ditu:

2.1. Irudi berri bat sortzeko helburuarekin, egin itzazu 7 x 7 cm-ko (gutxi gorabehera) hiru zirriborro, koloretan edo grisen eskalan, Merche Olaberen *La coleccionista de cactus* 3 edo Nathalie Du Pasquierren *Still life on my bicycle* obretatik abiatuta. Proposamena egiteko, hiru teknika erabili behar dira gutxienez (edo teknika bera hiru modu ezberdinetan aplikatuta). Teknika hezeak zein lehorrak izan daitezke. Zer teknika erabili ikasle bakoitzaren esku geratzen da. Horrela, irudi bakoitzak propietate ezberdinak izan beharko ditu erabilitako teknikaren, kolorearen, konposizioaren, ehunduraren eta ikonizitate-mailaren arabera. (Aurreikusitako denbora: 25 min)

2.2. Merche Olaberen *La coleccionista de cactus* 3 edo Nathalie Du Pasquierren *Still life on my bicycle* obratik abiatuta zirriborroak egin ondoren, planteatutako hiru zirriborroetako bat garatu 20 x 20 cm-ko tamainan gutxienez. Horretarako, erabili zure ustez egokiena den teknika. Originaltasuna eta sormena baloratuko dira, baita emaitzazko irudiaren propietateei dagokienez teknika nola erabili den ere. (Aurreikusitako denbora: 45 min)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK (USaP)

2025

AGPT

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD (PAU)

2025

TEGP



La coleccionista de cactus 3 (2011). Merche Olabe. Tenpera-pintura ohol gainean.

40 x 47,5 cm.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA **SARTZEKO**
PROBAK (USaP)

2025

AGPT

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD (PAU)

2025

TEGP



Still life on my bicycle (2005). Nathalie Du Pasquier. Oil on canvas. 100 x 150 cm.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK (USaP)

2025

AGPT

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD (PAU)

2025

TEGP

B atala

1. ariketa (probaren % 20ko balioa du). Gaia garatu:

Sakon-erliebean estanpatzeko prozedurak eta prozedura planografikoak.

Diskurtsoari hasiera eman diezaioketen bi irudi erakusten dira: *Konposizio*, Amadeo Gabinorena, eta *Visitación I*, Ana Juan-arena. Erakusketan horiei erreferentzia egitea baloratuko da. Eredu gisa proposatzen zaizun gidoi honi jarraitu behar diozu:

Gidoia:

1. Gaia garatu, obren alderdi formalak, teknikoak eta testuingurukoak aztertuz eta horiek gauzatzeko erabilitako prozedurak eta materialak alderatuz: trazua, ñabardurak, argi-ilunak, erliebeak, kolorea, osaera, formatuak, gainezartzeak, euskarriak, matrizeak.

2. Eremu grafikoko nomenklatura eta terminologia erabili, baliabideak, prozedurak eta materialak deskribatzeko. (Aurreikusitako denbora: 20 min)

2. ariketa (probaren % 80ko balioa du). Egin proiektu grafiko bat, publizitate-kanpaina baten bidez ingurumen- eta jasangarritasun-hobekuntza bat proposatzea helburu duena. Eredu gisa proposatzen zaizun gidoi honi jarraitu behar diozu:

Gidoia.

2.1. Hautatutako proiektuaren ideia nagusiak eta bigarren mailakoak idatzi eta identifikatu. Horretarako, idatzi gako-hitzak eta ideien elkarketaren bidez hitz horietatik eratorritakoak, kontuan hartuta zure proiektua definitzen duten 3 eta 6 kontzeptu artean jaso behar dituzula. Proiektua azaldu.

2.2. Deskribatu zer prozedura grafikorekin eta zer euskarritan gauzatuko zenukeen proiektua. Faseak laburbildu, eta bi zirriborro egin 20 x 20 cm-ko tamainan gutxienez.

(Aurreikusitako denbora: 25 min.)

2.3. Zirriborroetako bat garatu A3 formatuko kartel didaktiko bat sortuz, eta, horretarako, prozedura grafiko-plastikoak erabili (txantiloia estanpatzea, monotipoa, estartzioa, teknika hezeak eta lehorrak: arkatza, boligrafoa, errotuladoreak, tinta, akuarelak, etab.)

(Aurreikusitako denbora: 45 min.)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA **SARTZEKO**
PROBAK (USaP)

2025

AGPT

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD (PAU)

2025

TEGP



Composición (1953). Amadeo Gabino. Akuafortea, urtinta. 121 x 80 cm.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK (USaP)

2025

AGPT

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD (PAU)

2025

TEGP



Visitación I (1992). Ana Juan. Serigrafía. 29 x 47 cm.